

## **2. AKTA**

2003kko otsailaren 3an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

LEKUA: Pasaiako Hiria eta bertako Udaletxea.

DATA: Bi mila eta hiruko otsailak hiru.

ETORRIAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga J.

Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j. eta

Obdu Lorenzo de Dios.

Lehendakaria: Joan Karlos Alduntzin j.

Goian aipatu zinegotziak bildu dira lehen deialdian Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jauna bertan delarik, Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako egindako deialdiaren arabera. Ez du adierazi ezin etorria Anjel Ouviaña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 13:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin ez.

### **1.- Aurreko batzarraldietako aktak, 15. eta 1., hurrenez hurren 02-12-31 eta 03-1-13koak, irakurri eta onartzea.**

Atalburuan aipatzen diren aktak bertakoen kontsiderazioan jarririk, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat eman eta dagokien Aktaliburuan transkribatzea.

### **2.- 14/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea 14/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HIRUREHUN ETA HAMAHIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOKOA (313.945,93 eurokoa).

### **3.- Itsastarrak-i subentzioa.**

Gaia mahai gainean geratu da hurrengo Gobernu Batzordean batera aztertzeko Koxtape Kirol Elkartek kirol entitateei emateko diren subentzioei buruz tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa dela eta.

#### **4.- “Arizabalo Jauregia berrabiltzea, San Joan, 19” obraren 11. ziurtagiria.**

Gaia mahai gainean geratu da kontratua izapidatu eta esleitu arte.

#### **5.- Erantzukizunarek buruz hainbat erreklamazio.**

##### **A) M<sup>a</sup> Junkal Etxebeste Ugarte andreak egindako ondare-erreklamazioa.**

Ikusirik MARIA JUNKAL ETXEBESTE UGARTE andreak San Roke kaleko 18-3. A; 2. A eta 16. A ezk. etxebizitzetan aparailuen (garbigailuaren eta berogailuen) iragazkiak garbitzen eta kaniletan izandako gastuak direla eta 2002ko urriaren 31n ura kendu eta atzera berriro eman zelako.

Ikusirik Zerbitzu Sailak emandako txostena eta halaber Uraren Udal Arautegia, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

#### ERABAKI DU

LEHENENGO.- M<sup>a</sup> JUNKAL ETXEBESTE UGARTE andreak aurkeztutako erreklamazioa ontzat ez ematea ez duelako frogatu ur-horniduraren eta iragazkien zikinen arteko loune kausala.

BIGARREN.- Interesatuari akordio honen berri ematea legozkiokeen errekurtsioekin batera.

##### **B) Bonifazio Jimenez Conde jaunak egindako ondare-erreklamazioa.**

Ikusirik BONIFAZIO JIMENEZ CONDE jaunak 2001eko abenduaren 15ean izandako kalteen ondare erreklamazioa Eztainu Hodi fabrika zaharraren (SETE) barruan izandako sutea dela eta San Markos Errepidean, non afektatua gertatu baitzen M-6600-LS matrikuladun kamioia.

Ikusirik CASER Aseguru Konpainiak 2002ko abenduaren 20an bidalitako idazkia, non adierazten den kalteak sortu dituztenak ez direla Udaletxekoak, honela hautsia geratzen delarik arrisku aseguratua eta kalteen sorreraren arteko lotgune kausala, eta beraz, erreklamazio hau gaitzestea proposatzen delarik.

Kontuan izanik istripua gertatu zenean Eztainu Hodi fabrika zaharra ez zegoela Udalaren esku jarria.

**ETA  
EZ**



Dena dela, kontuan izanik gertatua ez dela zerbitzu publikoaren funtzionamendu normal edota anormalaren ondorioa baizik eta arazo pribatua dela eta jurisdikzio zibilari dagokiola, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

**ERABAKI DU**

BONIFAZIO JIMENEZ CONDE jaunaren erreklamazioa gaitzestea eta honen berri ematea lego-zkiokeen errekurtsioekin.

**C) Donostiako Udalak txostena eskatzea Eskalantegi kaleko 38an hondakin uren kutxetari buruzkoa.**

Ikusirik Donostiako Udaleko Mantenimendu eta Hiri Zerbitzuen Sailak 2002ko abenduaren 17an egindako eskaera, Pasaia udal honek informa diezaion ADELA MENDIA ATORRASAGASTI andreak Donostiako Udalari egindako ondare-erreklamazioa egiteko arrazoia izan den hondakin-uren kutxeta Donostiako udalari ahal dagokion.

Ikusirik Obra eta Zerbitzuetako Ikuskari Buruak 2003ko urtarrilaren 21ean luzatutako txostena, zeinak hitzez honela baitio: *ADELA MENDIA ATORRASAGASTI andreak bere erreklamazioan aipatzen duen kutxeta ez du udal honek jarria eta ezta mantendua ere.*”

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

**ERABAKI DU**

Donostiako Udalari aipatu txostena bidaltzea.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, 14:00etan batzarraldia amaitutzat eman da akta honetan jasoz eta hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugu.